

**EUSKO JAURLARITZAREN ELKARRIZKETA SOZIALARI  
BURUZKO AGIRIAREN BALORAZIOA**

Elkarrizketa Sozialeko Mahaia delakoa eratze aldera egiten ari den bileretan Eusko Jaurlaritzak agiri bat banatu du, honako izenburuarekin: “Eusko Jaurlaritzaren proposamena lan harremanen eta elkarrizketa sozialaren eredu berri bati buruz”. ELAren ustez behar-beharrezkoa da dokumentu honetako edukiak aztertzea eta eztabaida horien inguruan kokatzea. Hori izango da, beraz, azterketa honen mamia.

## **1. Sinatu gabeko agiria: idatzi duten “aditu”en izena jakin beharra dago**

Agiriaren edukia aipatu aurretik garrantzizkoa da erabili diren moldeak nabarmentzea. Proposamena Eusko Jaurlaritzak egin du, baina testuak dioenez “Sailak gogoeta hau hainbat esparrutako adituekin bultzatu eta partekatu du”. Gainera, esaten da “Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Politika Sozialen Sailak eskatuta eratu den hausnarketa-talde bat” izan dela, eta ahalegindu direla “balorazio komun batera iristen, zeinarekin (taldea) osatzen duten pertsona guztiak bat datozen”.

Talde hau eratu zenik ez zen lehenago ezagutzera eman, eta agiria aurkezterakoan ere ez ziguten aipatu. Ez dakigu zeinetaz ari diren ustezko “aditu” horiek eta “hainbat esparru” esaten dutenean. ELAk Jaurlaritzari eskatu dio agiria adostu duten pertsonen izena publiko egin dezala. Gardentasuna ikurtzat hartu omen duen gobernu bati ez dagokio dokumentua idatzi dutenen nortasuna ezkutatzea. Izen horiek ezagutzea beharrezkoa da, besteak beste, ezagutzeko zein iritzi izan duten erreforma laboralei buruz, negoziazio kolektiboaren erreformari buruz, sindikatuen eginkizunaz, etab.

ELAk nabarmentzen du gai honetan Urkulluren gobernuak erakutsi duen jokabidea Rajoyrena berarena baino are okerragoa dela. Espainiar gobernuak sarri baliatzen da “aditu”ez egitekoa den erreformei babesa emateko (erreforma laboralak, pentsioenak, fiskalak...). Baina behinik behin PPK “aditu” horien izenak ezagutarazi egiten ditu. Oraingon ez da hala izan. Jokabide honi guztiz onartezina deritzogu.

## **2. Zeintzu lirateke elkarrizketa sozialeko gaiak? Erabaki garrantzitsu bat ere ez**

Zein da Eusko Jaurlaritzak elkarrizketa sozialari ematen dion eginkizuna? Deigarria izanagatik ere, agiriak ez du argitzen balizko elkarrizketa sozial horretan zertaz hitz egingo litzatekeen; hau, berez, kezkatzeko modukoa da.

Agiriak dioenez elkarrizketa soziala enplegu, lan-osasun eta prestakuntzaren gaietan “kudeaketa eta exekuzio esparruetan” parte hartzera mugatuko litzateke, “maila hori kontzeptualki desberdina delarik politika publikoen edukia erabakitzeke mailatik, hauek gobernuaren eskumen eksklusibo direlarik”.

Hots, elkarrizketa soziala Jaurlaritzak esparru horietan erabakitzen dituen politikaren lagungarri hutsa litzateke; ahalmen konpetentziala, gainera, horietan mugatua da. Gobernu horrek erabakitzen dituen politikak kudeatu eta betearaztea besterik ez litzateke. Planteamendu honek, bestalde, honako ondorioak lituzke:

- Ez definitzea zein diren konpondu beharreko arazoak: gure ustez, desberdintasuna, langabezia, prekaritatea eta pobrezia. Honetaz guztiaz ez da agirian ezer esaten.
- Eztabaida eta elkarrizketa sozialetik kanpo uztea aberastasuna banatzearekin lotutako tresna nagusiak, esaterako aurrekontu-politikak, zerga-politikak, osasungintza, hezkuntza, etxebizitza, zerbitzu sozialak, prestazio sozialak, etab.

Horrenbestez, Urkulluk eta Aburtok proposatuko luketen elkarrizketa soziala espainiar

estatuan edo Nafarroan ezagutu dugun berbera litzateke. Alegia, porrot egin duen eredu bat. Elkarriketa sozialarekin babesten diren politikek ondorioak izan dituzte: Europar Batasuneko langabezia eta prekarietate tasarik handienetara eraman gaituzte; kalitatea bazter utzi duen enplegurako prestakuntza eredia ezarri dute, lehentasuna emanez patronalak eta CCOOek eta UGTk beren buruari diru-kopuru handiak esleitzeko aukerari (lanbide heziketako ikastetxeetara bideratu beharko liratekeen kopuruak); eta laneko segurtasun eta osasunaren lehentasuna alboratu da, arlo honetan patronalak eta sindikatu horiek duten negoziaren mesedetan.

Eredu honetan parte hartzeak sindikatuetan izan dituen ondorioak egunero ari dira komunikabideetan agertzen.

### **3. Eusko Jaurlaritzak mugatu egin nahi du sindikatuen eginkizuna. Mehatxu egin du diru-laguntzak soilik bere erabakien alde agertzen direnei emango dizkiela**

Agiriak adierazten du Eusko Jaurlaritza eredu sindikal jakin baten aitzindari dela -inondik ere ez ELAren-, eta horri eutsiko diola. Hala, hasieratik esan du botere publikoaren eginkizuna dela “sindikatuaren eta enpresario-elkarteen jardunbidea mugatzea”.

Aurrerago argi geratzen da Jaurlaritza zertaz ari den. Testuak dioenez, administrazioak posizioa finkatu behar du “gizarte era jakin baten alde” (gero ikusiko dugu zein lan harreman mota hautatzen duen). Eta “eragile sozial”ok eredu hori defenditzea nahi du. Beraz, sindikatuen jardunbidea mugatzeak esan nahi du saiatuko dela gobernuaren gizarte-eredua defendi dezagun.

Dokumentuaren arabera, botere publikoek ezin dute beste aldera begira edo posizio neutralean geratu, izan ere, “eragile sozialak duten negoziatzeko eta arautzeko botereak beren afiliatuen esparrua gaingitu egiten du”, eta “langile guztiak hartzen ditu bere baitan”. Jaurlaritzaren hitzetan, “horregatik jasotzen dituzte baliabide publikoak”.

Jarraian esaten da “Botere horren ordaina (...) gizarte era jakin bat eraikitzerakoan uko egin ezineko erantzukizun kuota bat da”.

Hots, sindikatuok afiliatu eta afiliatu ez diren pertsoneri eragiten dieten akordioak irits ditzakegu. Horregatik jasotzen omen ditugu diru-laguntzak. Horregatik, da euren ondorioa, defenditu behar omen dugu gobernuak aldeztzen duen gizarte eredia. Bestela esanda. Jaurlaritzaren politikaren atzean dagoen gizarte ereduarekin bat ez gatozen sindikatuoi diru-laguntzak kentzeko mehatxua botatzen dute. Hau erabat antidemokratikoa da. Antzeko zerbait litzateke soilik gobernuaren helburuak onesten dituzten alderdientzako laguntzak ematea. Hau sindikalismo bertikal berri eta hobetua da.

Eusko Jaurlaritza hau noraino iristeko prest ote da? Bertikalismo berri honentzat sindikatua ez da erakunde sozial burujabe bat, gizarte-proiektu eta ikusmolde propioa duena, gizarteko alderdi baten interesak defenditzen dituena; aitzitik, bere propaganda tresna bat da, erabakitzen dituen politikak onartuko direla eta ez zaiela aurre egingo bermatzeko.

#### **4. Eusko Jaurlaritzak defenditzen duen lan harremanen eredua enpresen interesen mesederako da**

Dokumentuak ukatu egiten du enpresan kontrajarritako interesen talka dagoenik. Hala, hasieratik sindikatu eredu jakin bat du gogoan: beren “jardueraren xedea, inondik ere, enpresa era baten existentzia eta sendotzea ahalbidetzea da, zeinak guztien -enpresario zein langile- aurrerabide eta ongizatera eramango duen”. Antza, Eusko Jaurlaritzak ez du gatazkarik ikusten. Gauza bera zioten Francoren Mugimendu Nazionalaren Printzipioek, enpresa definitzerakoan: “Enpresa, produkziara bideratutako gizaki eta bitartekoen elkarte, interesen komunitatea eta xedeen batasuna da”.

Alde batera uzten da, beraz, lan harremana desberdinen arteko harremana dela eta, ondorioz, langilearen erlazioa enplegu-emailearekiko menpekotasun eta dependentziazkoa dela. Ez da inondik ere aipatzen lan prekarietatea bere adierazpide desberdinetan zenbateraino hedatu den.

Deigarria da “Lan harremanen eredu berri bateko gakoak” atalean gobernuak aldeztu duen eredu horren erdigunean enpresa egotea, eta bera “pertsonekiko (enplegu-emaile – enplegatuekiko) harreman esparru” gisa ulertzea. Azalpen guztian ez da sindikatua behin ere aipatzen. Batetik enpresarioa dago, eta bestetik, banako langilea, antolatu gabea. Alde ahulenak ez du defentsa kolektiborik. Horrela, noski, enpresarioak are errazagoa izango du. Ez da, begibistakoa denez, ELAk hobesten duen eredua.

Areago, agiriaren filosofiak ondorio batera garamatza: Jaurlaritzaren iritziz erreforma laboralak, zeinek eskubideak murriztu eta negoziazio kolektiboa txiki-txiki eginda utzi duten, justifikatuta zeuden. Ez da halaxe esaten, baina dokumentuan honako pasarteak aurkitu ditugu:

- Ultraaktibitatea arazo bat omen zen. Hala dio testuak hitzez hitz: “sistemaren gehiegizko zurruntasuna, hitzarmenaren edukiak juridikoki erabateko derrigortasuna zuelako, eta bere iraupena ez zetorrelako bat enpresen jarduera garatzen den testuinguru ekonomikoarekin”. Eufemismo gehiegi, ultraaktibitatea ezabatzearekin ados daudela ezkutatzeko.
- “Irtenbide bakarra dago, erreferentzia aberatsagoa duen negoziazio sektoriala, baina era berean malguagoa eta, horrenbestez, enprekin areago eta hobeto artikulatuta izango dena, haien moldatzeko beharizanak galarazi edo ia ezinezko egingo ez dituen”. Alegia, aitortzen da beharrezkoa zela sektore mailako negoziazio kolektiboaren eragina mugatzea, erreformek bata bestearen atzetik egin duten bezala. Beti ere helburu bakarrarekin, malgutasuna, zeina gobernuak dioenez lehenago ez zegoen eta oraindik ere ez dagoen. Erreformen filosofia eta edukiak goitik behera onartzen dira.

Beraz, ondoriozta daiteke Eusko Jaurlaritzak aldeztu duen lan harremanen ereduaren gakoa dela enpresei jarduteko ahalmen handiagoa ematea, eta hori, gatazkarik gabe. Hain zuzen deigarria da agiriak hitzarmen sektorialen bertute gisa aipatzea gatazka enpresetatik ateratzen zutela: “lan-baldintzen negoziazio prozesuekin lotutako gatazka kanporatu egiten zuten, enpresaz gairik esparrura eramanez”. Gobernuaren eredu honek beste kontu batzuri ez die heltzen, esaterako aberastasunaren banaketa, prekarietatearen jazarpena edo ELAk defenditzen duen ekintza sindikal erreibindikabarako beste funtsezko gai batzuk.

Jaurlaritzaren diskurtso faltsua salatu beharra dago: elkarrizketa eta kontsentsuaz ari da, baina bere politikak alde bakarreko erabakiz ezartzen ditu. Areago, agintean dagoen EAJ Bizkaiko Foru Aldundiaz ere baliatzen iritsi da Herritar Ekimen Legegile baten inguruko

eztabaida geldiarazteko, berau tramitatzea Legebiltzarrak onartu eta gero. HEL honek azpikontrata publikoen esparruan gutxieneko lan-baldintzak arautzea du helburu.

## **5. Negoziazio kolektiboaren errealitateak Jaurlaritzak esandakoa ezeztatzen du**

Aurreko puntuan aipatutakoa aski ez balitz, gehi daiteke agirian aldarrikatzen den enpresa ereduak ez duela errealitatearekin zerikusirik. Proposatzen den pertsonen (enplegu-emaile – enplegatu) arteko harreman esparruaren oinarri bakarra ez omen da soilik etekina izan behar; proiektu komun bat beharrezkoa da, non langileek parte hartzeko aukera izango duten.

Honek ez dauka zerikusirik egunetik egunera Hego Euskal Herriko enpresetan bizi dugun errealitatearekin. Halere, Eusko Jaurlaritzak ez du inolako ahaleginik egiten aztertzeko zer nolako kontraesan handiak dauden aipatutako helburuen eta errealitatearen artean. Egoera erreala aztertu nahi ez denez, egoera horrekiko alde bakoitzak duen erantzukizuna ere ez da ikertzen. Zein da enpresen politika? Zer eskatzen diote erakundeei? Zer egiten dute gobernuek, Jaurlaritzak barne? Zein politika aplikatzen da?

Lan munduko errealitatea da lan-baldintzak okertzen ari direla (soldata, lanaldia, malgutasuna, aldi baterako enplegua, lanaldi partzialekoa, etab.). Harreman gero eta desberdinagoa, zeina lege aldaketek erraztu baitute; horren ondorioz patronala bere aldebakarreko boterea mugatzen edo murrizten duen edozein aldaketaren aurka agertzen da.

## **6. Eusko Jaurlaritza enplegu-emaile gisa: negoziazio kolektiborako eskubidearen ukazioa**

Jaurlaritzak enplegu-emaile gisa duen jokabideari arreta eskaini behar diogu bereziki. Gai honetaz agiriak dio administrazioek “beren enplegatuei aplikatu beharko lizkiekete eurek aldarrikatu edo aldeztu duten lan harremanen ereduarekin bat datozen pertsonal politika eta kudeaketa irizpideak”.

Zein politika aplikatzen du Eusko Jaurlaritzak enplegu-emaile den aldetik? Negoziazio kolektiborako eskubidea ukatzen du eta era guztietako murrizketak inposatzen ditu (soldata, enplegua, lan-baldintzak, Enplegu Publikoaren legegai, etab.).

Urkulluren gobernuak, Lopezenak egin zuen bezala, dekretu bidez eta agintekeriaz jokatzeko du; alde sindikalarekin akordioak bilatzeko aukera baztertu egiten du. Areago, BGAEetara (Itzarrira, hain zuzen) ekarpenik egin ez duen EAEko herri-administrazio bakarra da. Negoziazio kolektiboaz kezkatzen dela dio, baina behin eta berriz zanpatzen du.

Jokabide hau bere lan harremanen ereduarekin koherentea da. Zalantzarik gabe, Jaurlaritzak enplegu-emaile gisa egiten duena arlo pribatuko negoziazio kolektiboan ere arau izatea nahiko luke.

## **7. Agiriaren arabera arazoa ELAren ekintza da**

Testu guztian ez da enpresa eta ugazaben jokabideari buruzko kritika bat ere agertzen. Alabaina, ELAren posizioari maiz hartzen zaio kargu. Hauek dira adibide batzuk:

- “ELA sindikatu nagusiak publikoki eta sarri adierazi izan du elkarriketa sozialeko mahaia eratzearen kontrako jarrera”, dio agiriak. Noski, ez du azaltzen ELAk hori

zergatik esan duen, ezta argudiatu ere emandako arrazoiak zentzuzkoak diren ala ez.

- Ez da azaltzen ere ELAk zergatik erabaki zuen KES, LHK, Osalan eta Hobetuzetik alde egitea eta Lanbiden parte ez hartzea. Erakunde horietatik joatea omen da, agiriaren arabera, ereduak dituen bi “funtzionamendu eragozpen”etako bat, erreforma laboralaren aurretik ere bazegoena. Beraz, euren arabera arazoa ELAk alde egitea da, ez horretara bultzatzen duten zergatiak.
- “Duela gutxi, oraingoan ere sindikatu nagusiak, enpresario-elkarteen ordezkariak maila erreala zalantzan jarri du (...) horrek aurreikusteko zailak diren ondorio batzutaraz eraman lezake, baina beti ere ukazina da larriak izango direla (...)”. Hots, kontua ez da, Jaurlaritzaren arabera, patronalak benetako ordezkariak baduen ala ez, baizik ELAk hori zalantzan jartzea.
- Enpresa-hitzarmenak hedatzeari buruz, lantoki askotan egiten ari den borroka mespretxuz juzkatzen da; izan ere, agiriaren arabera “akordio horien funtsa batik bat soilik lege-erreforma neutralizatzeko klausulak dira, era berean hitzarmeneko edukiak ez direlarik aberasten, ezta ezartzen ere enpresaren jarraipena bermatzeko mekanismoak, zeinek eredu aurreratuago baterantz hurbiltzea ahalbidetuko luketen”. Borroka sindikalari irain egitea da hau; jarrera intelektual burgoi horrek, ordea, errealitatearekiko kontrasterik ez du gainditzen. Agerikoa da jende honek ez duela jasaten aplikatzen ari den politiken ondorioak.

## ONDORIOAK

1. ELAk uste du Eusko Jaurlaritzak elkarrizketa soziala delakoa abiarazteko aurkeztu duen agiria onartu ezinikoa dela goitik behera. Mugimendu sindikalari egindako irainaren parekoa da. Nahi dutena da sindikalismoa eta gatazka enpresetatik ateratzea. Bere edukiak frogatzen duenez, benetako mamirik gabeko elkarrizketa soziala da helburua, eta bultzatzen duten lan harremanen ereduarekin Euskal Herrian pairatzen ari garen desberdintasun ekonomiko eta sozial hazkorra areagotu nahi dute.
2. ELA ez dago prest onartu ezinikoa baldintza horietan oinarritutako elkarrizketa sozial batean parte hartzeko. Edukirik gabeko antzezpen horretan parte hartzen duen sindikatuak sistema jakin bati emango dio babesa, kapitalaren eta enpresen interesak langileen interesen gainetik jartzen dituen ereduari. Hautu sindikal hau Nafarroan eta espainiar estatuan UGTk eta CCOOek garatu dute, eta orain horregatik ari da hedabideetan agertzen hainbat eskandalu; hauen erroa beti izan da bake soziala helburu zuen sistema batean inplikatu eta kudeatzaile izatea, horren truke finantzatu egiten baitziren parte hartzen zuten erakundeak. ELAk beti baztertu izan du sistema horren parte izatea, eta hala eutsiko dio.
3. Ezin da ulertu esparru sindikalean (baita politikoan ere) gertatzen ari dena erakunde bakoitzaren autonomia politiko eta finantzario mailari erreparatu gabe. ELAren irudiko funtsezkoa da erakundeak politiko eta ekonomikoki autonomo izatea.
4. ELAk Jaurlaritzari eskatzen dio ez dezala Elkarrizketa Sozialeko Mahairik abiarazi. EAEko gehiengo sindikala aurka dago. Beraz, arazoa ez datza soilik ereduari. CCOOek eta UGTk osatzen duten minoria sindikalarekin eratzearen parekoa litzateke 75 kide izan ordez 27 lituzkeen sasi-Legebiltzar bat sortzea. Halako parlamentu batek zilegitasun bera izango al luke? Legitimoak izango ote lirateke bere legeak?
5. ELAk ohartarazi behar du agian Jaurlaritzak zuzenean finantzatuko dituela Elkarrizketa Sozialeko Mahairik parte hartuko duten erakundeak, Patxi Lopezen gobernuak egin zuen moduan edo Nafarroan patronalak, UGTk, CCOOek, UPNK

eta PSNk erabaki duten bezalaxe. Kiebra ekonomiko eta finantzarioa jota dagoen sindikalismo baten erreskate-plana da sindikatu batzuk honelako elkarrizketa sozialari babesa emateko arrazoi bakarra.

6. ELAk gogoratu behar du duela zenbait hilabete Jaurlaritzak eta sindikatu honek erabaki zutela enplegurako prestakuntza edota lan osasunaren moduko gaiei buruz elkarri agiriak helaraztea. ELAk emandako hitza bete zuen, baina gobernuak ez. ELAren proposamenei oraindik ez diete erantzunik eman, Jaurlaritzak konpromiso hori bere gain hartuagatik ere. ELAk beti agertu du interesa eta konpromisoa politika publikoek jendearen beharrianak ase ditzaten.
7. ELAk langile-klasearen indar-erlazioa hobetzeko helburua duen eredu sindikala jorratzen jarraituko du. Jaurlaritzak argi utzi du aurrerantzean ere aldebakarreko erabakiak hartuko dituela, kontsentsu sozialik gabe. Patronala harrotuta dago, bere emaitza-kontuak enpleguaren eta lan-baldintzen lepotik hobetuz. Jaurlaritzak eta patronalak bake soziala nahi dute, eta sindikalismoak ezikusiarrena egitea. Baina ELAk ez du halakorik egingo.
8. Aurrerantzean ere erakutsiko dugu gertatzen ari denak baduela alternatibarik. Horretarako, negoziazio kolektiboan, besteak beste, honakoa defendituko dugu: erosteko ahalmena, enplegua sortzeko lanaldi murrizketa, prekarietate laboralaren adierazpide desberdinen aurkako borroka, eta erreforma laborala ez aplikatzea. ELAk ez dio etsiko bere eskariari: Hego Euskal Herriko erakundeak egiten ari diren aurrekontu- eta zerga-politikak errotik aldatzea. Gainera, lan harreman eta babes sozialeko euskal esparrua sortzea ere galdatuko du; honek ez dauka zerikusirik egungo eredua kudeatzearekin, eta ezin da bateratu Elkarrizketa Sozialeko Mahaiari emandako babesarekin.